



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Miren Urbietta-Vega sopranoak errepertorio musikal zirraragarria interpretatuko du *París, años 20* kontzertuan

- Emanaldia asteazkenean izango da, maiatzaren 19an, eta Ravel, Poulenc, Delage edo Falla harremanetan jartzen ditu, entzuleak 20ko hamarkadako Parisko giro artistikora eramanez, garai hartako epizentro kulturalera.
- Interpretazio instrumentalaz Sapere Aude Sinfonietta musika taldea arduratuko da, Alain Ayerdiren zuzendaritzapean.
- Kontzertu hau, Arriaga Antzokiak Guggenheim Bilbao Museoaren *Urte eroak, 1920ko hamarkada* erakusketari lotuta prestatu duen programazio bereziaren barruan kokatzen da.

**Bilbo, 2021eko maiatzaren 14a.**- Arriaga Antzokiak datorren asteazkenean, maiatzaren 19an (19:00etan), eskainiko du Guggenheim Bilbao Museoan dagoeneko ikusgai den *Urte eroak, 1920ko hamarkada* erakusketarekiko paraleloan eta haren osagarri gisa prestatu dituen zazpi ikuskizunetatik bigarrena.

**Miren Urbietta-Vega** sopranoa, **Sapere Aude Sinfonietta** musika taldeak lagunduta — **Alain Ayerdiren** zuzendaritzapean—, ***París, años 20: de compositores a dedicatarios*** izeneko kontzertu oso bereziaren protagonista izango da. Kontzertuan XX. mendeko lehen hamarkadetako ganbera musikako ekoizpenen orrialderik onenen antologia biltzen da, ahots-musikarenak eta instrumentalenak, arreta maitasunaren hirian jarriz, Parisen, alegia, garaiko epizentro kulturala baitzen.

Izan ere, Paris Europaren erdigunea zen, bai arte plastikoetan, bai literaturan eta musikan ere. Hainbat herrialdetako musikagile, idazle eta margolariak elkartzen ziren Parisen, abangoardiez elikatzeko, talentuak bateratzeko eta sorkuntza-lan berriak sustatzeko. Musikak, interpretazio-diziplina guztiek bezala, krisiek eragindako aldaketa sozial bortitzak islatzen ditu. Sarri gertatu ohi denez, krisialdiek emankortasun artistiko handiko urteak dakartzate, eta 20ko hamarkadan, Lehen Mundu Gerra amaitzean, halaxe gertatu zen ere.

Gainera, egitarauan interpretatzeko hautatu diren lanen bitartez, aipatzen diren musikagileek izan zuten elkarbizitza estua eta elkarrenganako miresmena erakusten da. Batzuetan sortzaile dira, beste batzuetan hartzaile. Obra horiek Ravelen, Stravinskiren, Fallaren eta Poulencen arteko adiskidetasunaren eta lankidetzaren erakusgarri dira. Satie, Debussy edota Fauré konpositoreen oinordeko izan ziren, eta baita horien ikasle aurreratu ere. Delage izan zen ikasle aurreratu horietako bat, eta zenbait konposizio eskaini zizkien maisuei.

Programaren oinarrian dauden gaien eta egituraren ezaugarriak ganbera-abestien trataeraren araberakoak dira. Oraingoan abestiek instrumentu-talde txikien akonpainamendua dute, eta horrek kolore-aberastasun berritzaile eta intimoa eransten die. Horri guztiari exotismoarekiko zaletasuna gehitzen zaio, Ekialde Urrunera

garamatzaten *Quatre Poèmes Hindous* oroitarazleetan, esaterako. Lan hori Ravel maisuaren *Trois Poèmes de Stéphane Mallarmé* konposizioaren oinordeko leiala da. Aurrerago, Ravelen *Chansons Madécasses* izeneko hiru abestiek eta Poulenc gazte eta umoretsu baten *Rapsodie Nègre* irrigarriak Afrikara eramango gaituzte. Manuel de Fallak —musikagile frantziar horien belaunaldiak asko estimatzen zuen konpositoreak—, berriz, Psyché lan bikaina sortu zuen, Greziako mitologiako gertakaria Alhambra trebeki eramanez, leku exotikoa hori ere. Musikako bitxi laburra da, Parisen bizi izan zen garaian barneratu zuen kutsu inpresionista frantziarra duena. Egitarauetan maiz ikusten ez diren orrialdeak dira guztiak. Gozamenerako uneak dira, konpositoreen inspiraziorik onenaren emaitza baitira. Oraingoan, Miren Urbieta-Vega eta Sapere Aude Sinfonietaren eskutik, Arriaga Antzokiak erreperitorio hain bereziarekin gozatzeko aukera eskaintzen die entzuleei. Hitzordua maiatzaren 19an da, asteazkenean, 19:00etan.

### **Urte eroak, 1920ko hamarkada**

Komeni da gogoraraztea Guggenheim Bilbao Museoaren eta Arriaga Antzokiaren arteko elkarlan hau Calixto Bieito Arriaga Antzokiaren zuzendari artistikoaren inplikazioaren bidez sortu zela, berak egin baitu Museoan ikusgai den *Urte eroak, 1920ko hamarkada* erakusketaren diseinua. Elkarlan horren helburua da, alde batetik, erakusketaren eszenografia aberastea, Bieitoren zigilu pertsonala emanez, eta, bestetik, bi erakundeen arteko elkarriketa Arriaga Antzokira hedatzea. Bertan, ikuspegia zabaltzen duten eta erakusketaren osagarri diren zazpi ikuskizun eskainiko dira. Igandekoa dugu aurrenekoa.

### **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 11 eta 25 euro artean (beherapenekin)
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean, 946 850 850 telefono zenbakian edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)